



Andoaingo Udala



Prestakuntza + Kontratazio programa: 8 langabetu andoaindar kontratatuko ditu Udalak 'muralismo' esparruan lan egiteko

- **Emakumeei emango zaie lehentasuna**
- **Programa martxoaren 20an hasiera da; izen-emateko azken eguna otsailaren 29an izango da.**

Andoainen, 24-02-15.- Andoaingo Udalak prestakuntza + Kontratazio Programa bat jarriko du abian, 8 pertsoneri zuzenduta, batez ere emakumeak. Iraupen luzeko langabeak, eta/edo DSBE eta/edo MViren onuradunak edo kualifikazio txikiko langabeak, 6 hilabetez muralismoaren esparruan lan egiteko, "Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektuak. Lehentasunezko arretako kolektiboak» programaren baitan, Lanbidek sustatuta eta Europako Gizarte Funtzak finantzatuta.

Egungo programak muralismoaren alorreko gaikuntzaz gain, aktibazio-espazio gisa eratzen da, beren ibilbide profesionalarekin eta aurretiko esperientziarekin bat datorren jarduera-sektore batean parte hartzen duten pertsonak laneratzeko. Programak irauten duen bitartean, talde-orientazioko ekintzak egingo dira, bai eta pertsoneri banakako laguntza ematea ere, geroko laneratze hori sustatzeko.

Hasiera batean, martxoaren 20an hasiko da programa.

Eskaerak: Eskaintzen diren lanpostuak betetzeko hautaketara aurkezteko modu bakarria LANBIDE -EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUaren bitartez izango da, beraz, interesaturik dauden eta lanpostu bakoitzerako ezinbesteko baldintzak betetzen dituzten pertsonak LANBIDEn izena emanda egon behar dute (www.lanbide.eus). Otsailaren 29a izango da azken eguna hasiera batean.

Zalantzarik izanez gero Andoaingo Udaleko Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazteria Lansailera zuzendu (Tfnoa. 943.304221 /enplegua@andoain.eus; efteknikaria@andoain.eus)